



KOLESTEROLARENDAKO SENDAGAIAK..

Zalantzak daude
onuragarriak ote diren
75 urtetik gorakoendako,
bihotz-hodietako
eritasunik ez badute.




BIZITZA
OSORAKO?

• ZER DIRA?

KOLESTEROLA GUTXITZEN DUTEN SENDAGAIAK:

atorvastatina, simvastatina, fluvastatina, lovastatina, pravastatina, rosuvastatina, pitavastatina eta ezetimiba.




• BETI DIRA EGOKIAK?

Bihotzekorik, bularraldeko anginarik edo garuneko iktusik izan ez duten adinekoek segur aski ez dute haien beharrik.

• ALBO-ONDORIORIK BA OTE DUTE?

Bai. Besteak beste, sor ditzakete digestioko eta giharretako arazoak, buruko, bizkarreko edo giltzaduretako mina, eta zorabioa.



• SENDAGAI HAU HARTZEARI UTZI BEHARKO NIOKE?

Hartzeari zure kabuz ez utzi. Galdetu medikuari, hark esan dezan ea sendagaiak jarraitzen ote duen zuretzat onuragarri izaten.

AHOLKU BATZUK,
BIHOTZ-HODIETAKO
ERITASUNEN ARRISKUA
EKIDITEKO

- EZ ERRE
- Ariketa fisikoren bat egin
- Dieta osasungarria izan
- Pisu orekatu bati eutsi
- Gatz eta azukre gutxiago jan